


Vivimos momentos especialmente interesantes para pueblos como Catalunya y Euskal Herria. Pueblos que han demostrado su voluntad y capacidad de autogobernarse y que han manifestado democráticamente su voluntad de decidir libremente su futuro. Es el momento de dar pasos efectivos más allá de las meras reivindicaciones y dotarnos de los instrumentos jurídicos y políticos para llevar a efecto esta voluntad. Cada pueblo tiene que hacer su propio camino, sin duda, pero las bases democráticas que representa el derecho a decidir es el suelo común de toda persona, de toda ciudadana y ciudadano que se autodenomine demócrata, por lo que en su defensa debemos ir de la mano todos aquellos que seamos capaces de crear una nueva cultura basada en el respeto a los distintos sentimientos de pertenencia nacional y a las decisiones soberanas adoptadas libremente por una comunidad política. Es una obligación –para algunos moral, para otros ética y sobre todo democrática– apoyarnos mutuamente en los pasos que unos y otros vayamos dando y adoptar una actitud firme ante actitudes antidemocráticas que nieguen el derecho a decidir y los cauce jurídicos para su efectiva realización. Sólo así lograremos ser libres y soberanos.

Zelai Nikolas



EUBA UGARTE, Argibel

Basker. 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak

Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko
Argitalpen Zerbitzua, 2016
261 or. : ir. + 1 DVD ; 24 cm.
ISBN: 978-84-9082-470-2

1963ko otsailaren 8an *El Diario Vasco* egunkariaren azalean aurkitutako berria eta barnealdeko orrialdeetako elkarrizketak osatzen duen informazioarekin hasten da Argibel Eubaren ikerketa lana. Suediako STV (Sveriges Radio TV) telebista publikoko Dan Grenholm erreportaria eta Lennart Olson argazkilaria Euskal Herriaren folklorea eta bizimodua filmatzeko egiten ari diren bidaiaren xehetasunak ematen ditu berripaperak. Hilabete batzuk geroago, STV telebistako kanal bakarrak data eta ordutegi pribilegiatuan eman zituen bidaiaren emaitza ziren bi dokumental etnografikoak: 24 minutuko iraupena duen *Basker: En film från norra Spanien av Dan Grenholm och Lennart Olson* (Euskaldunak: Espainia iparraldeko pelikula bat Dan Grenholm eta Lennart Olsonen eskutik), ekainaren 29an (larunbata) eman zuten, eta 17 minutuko *Bonde i Baskerland: En film från Pyrinéerna av Dan Grenholm och Lennart Olson* (Nekazari Euskaldunen Herrian: Pirinioetako pelikula bat Dan Grenholm eta Lennart Olsonen eskutik), uztailaren 5ean (ostirala) eskaini zen. Argibel Eubaren iritziz, dokumental horietako bakoitzak kutsu bat dauka: “*Basker* euskal folkloreak adierazpideetan (herri-kirolak, musika, dantza) zentratzen da nagusiki; *Bonde i Baskerland* filmak, berriz, izenburuak dioen bezala, nekazari-bizitzan finkatzen du arreta nagusia, landa-eremuarekin estuki erlazionatutako lan eta adierazpide kulturalak erakutsiz. Deigarria da telebistara zuzendutako iraupen laburreko ekoizpen horien irudi eta soinu-kalitatea” (19. orrialdea).

Suedian emandako *Basker* eta *Bonde i Baskerland* dokumentalek ez zuten oihartzunik izan frankismoaren menpe bizi zen garai hartako Euskal Herrian. Argibel Eubak aurkitu dituen arte, hainbat urtetan desagertuta egon dira filmak, inork ez zuten bi erreportari suediarren lanen berri. Aurkikuntza horren aurrean, ikerketa ardazten duten galdera egokiak planteatzen ditu egileak: “Zergatik aukeratu zuten bi erreportariak Euskal Herria filmatzea, eta zergatik filmatu zuten modu horretan? Zein toki bisitatu zuten? Norbaitek gidatu al zituen Euskal Herrian zehar euskaldunei buruzko datuak eta gogoetak eskainiz? Zein puntura arte egin zuten egileek Euskal Herriarekiko dokumentazio- eta trebatze lana? Zein da filmek Euskal Herriari buruz proiektatzen duten irudia? Espainiar zentsurak eraginik izan al zuen lanengana? Nola gauzatu zen prozesu guztia? Eraginik izan al zuten lan horiek euskal kulturaren edo zineman?” (12. orrialdea). Itaun horiei guztiei erantzuteaz gain, beste hiru ekarpen interesgarri egiten ditu liburuak: suediar erreportariaren eskarmentua eta dokumental etnografikoen ekoizpena bideratu zuen testuinguruaren deskribapena, bi lanen film analisia eta balio etnografikoen edukien azterketa, eta Suediako prentsan bi ikus-entzunezko horiei buruz, eta, oro har, euskaldunei buruz argitaratutakoaren azterketa.

Esan bezala, Dan Grenholm eta Lennart Olson berriemaileen soslaiak eta ibilbide profesionala, zein Lennart Ehrenborg, STV (Sveriges Radio TV) telebistako Zinema Saileko arduradunaren figurari buruzko gogoeta egiten du Eubak (69-100. orrialdeak). Kontuan hartzekoa da Ehrenborgek suediar telebistan bultzatutako film askeen ekoizpen sistema berriatzaileak *Basker* eta *Bonde i Baskerland* dokumentalen ekoizpena ahalbideratu zuela. Horixe da liburuak jasotzen duen azalpena: “Ekuazioa sinplea zen: irati-telebista erakundeak geroz eta pelikula gehiago behar zuten, eta zinemagile independenteak baldintza duintan filmatzeko irrikaz zeuden. Horrela, esperientziadun eta esperientziarik gabeko sortzaile askok aukera izan zuten beren lanak ekoizteko eta hedatzeko” (103. orrialdea). Dan Grenholmek nortasun irekia zuen eta bidaiari amorratua zen, autodidakta honek hamaika ogibide izan zituen, soinu teknikaria, kazetaria, gitarra-jotzaile flamenkoa eta gida turistikoa, besteak beste. Halaberrez ezagutu zuen Lennart Olson argazkilaria eta 1962. urtean elkarrekin egiten zituzten Andaluziari buruzko lehen bi dokumental etnografikoak: *Fandango: Musik och människor i Andalusien* (Fandango: musika eta jendea Andaluzian) eta *Flamenco: Möte med spanska zigenare* (Flamenco: espainiar ijitoekin elkarriketatzea). Ondoren, Euskal Herriaren gaineko bi ikus-entzunezkoak sortu zituzten (111-118. orrialdeak). Bi dokumental horien eduki historiografiko eta folklorikoak oso baliotsuak dira eta horrek erakusten du filmazioa ez zela inprobisatu. Liburuak Grenholmek 1954an Euskal Herria egin zuen lehen bidaia baten zantzuak agerian uzten ditu, eta, froga argiegirik egon ez arren, Olsonekin batera dokumentalen filmazioa egin aurretik bidaldi horretan ezagututako pertsonekin harremanetan jarri zela ere aditzera ematen du lanak. Eubak suediarrek 1963. urtean egin zuten bidaia eta filmazioaren planifikazioan, gutxienez, hiru elkarteetako kideen laguntza izan zutela frogatzen du: Aranzadi Zientzia Elkarteak, La Academia Errante eta KTE, Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxea (CAT, Centro de Atracción y Turismo), hain zuzen. Joxemiel Barandiaran, Jesus Elosegí, Jose Maria Busca, Manuel Laborde, Luis Pedro Peña, edota Gabriel Amezttoy dira, besteak beste, izan ziren lanaren antolamenduan lagundu zutenak (107-137. orrialdeak). Argi dago filmatutako eduki eta materialak elkarte eta pertsona horien laguntzari esker egin zirela, baina horrek ez zuten baldintzatu suediarrek Euskal Herria eta euskaldunak aurkezteko, dokumentatzeko modua.

Liburuaren lehen kapituluak dokumentalen filmazioari eta muntaketari buruzko informazio teknikoak ematen da. Bigarrenean, berriz, bi ikus-entzunezkoen deskribapen sakona, eta, eszenen bereizketa eta zerrendatzearekin batera, dokumentalen atal ezberdinetan parte hartu zuten garaiko erreferenteak (bertsolariak, pilotariak, txistulariak, soinu eta pandero jotzaileak, harri-jasotzaileak edo txalapartariak, besteak beste) eta zenbait herritar arrunt identifikatzen dira. Egileak lekuko horiekin guztiekin egindako elkarrizketak oso baliagarriak dira liburuaren beste atalburu batzuetako edukietan sakontzeko orduan. Suediarrekin izandako harremana edota filmazioari buruzko pasarteak jasotzen dira solasaldi horietan. Honez gain, Eubak azpimarratzen duen moduan, oso agerikoa da dokumentalek erakusten

duten emakumeen presentzia urria euskal jarduera folklorikoetan. Hau batez ere *Baskeren* ematen da, izan ere, *Bonde i Baskerlandek* emakumeek baserri eta nekazal eremuan duten pisua agerian uzten du. Azkenik, azpimarratu behar da lanaren irakurketa errazten duten bi ikus-entzunezkoen edukien deskribapenaren ondoan azaltzen diren fotograma ugariak, eta, are gehiago, liburuarekin batera datorren bi dokumentalen DVDa.

Baskeren hamalau atalburuak sakonki zehazten ditu Eubak (21-51. orrialdeak): lehen zatia *Iturenko eta Zubietako inauteriak* da, ondoren *Pilota* dator. Bi dira atal honen arreta puntuak: Bergarako Udal Frontoi zaharrean *Barberito* I.a eta Etxabe X.a, eta, Atano X.a eta Soroaren arteko partida batetik, eta bestetik, apustulari eta artekariaren jarduna. Hasierako bi atal horietan Grenholmen lokuzioek irudietan islatzen denaren azalpena ematen dute. Jarraian, jatorrizko giro soinua besterik ez duten pasarteak datoz: *Kalejira eta aureskuak*, eta, *Sakabi eta Egañazpi*. Lehenengoa Abadiñoko San Blasen jaiegunean Alejandro Aldekoa txistulariaren eta egiten ari den auresku-txapelketako dantzariaren trebezia erakustea du helburu. Bigarreanean, *Sakabi* soinu jotzailea eta *Egañazpi* pandero eta kantariaren eskutik entzuten dira Aian egiten ari den jaialdiari hasiera ematen dioten erritmoak. Gipuzkoako herri horretan grotzen dira Grenholmen lokuzioaz lagundutako *Idi-dema*, *Harri-jasotzailea* eta *Ahari-talka* zatiak. Nabarmentzekoa da dokumentalaren kapitulurik ikusgarrienak *Idi-dema* eta *Ahari-talka* direla. Azken atal horren maisutasuna azpimarratzen du egileak: “Hau da pelikula osoko eszenarik bizkor eta biziena, plano laburrez eta kamera-mugimendu azkarrez betea. Egileek proba honek inguruan sortzen zuen tentsio, zirrara eta josteta nahasketa sentituko zuten, eta sentsazio horiek islatu zituzten tratamendu formal egokiaz. Ahari-talkaren irudi indartsuak ikusleen planoekin konbinatzen dira aldiro, edertasun handiko eta emozio kutsakorreko sekuentzia osatuz. Berez, ugariagoak dira ikusleen planoak borrokarenak berarenak baino, eta ez dirudi hori mentura denik: plaza jendez lepo dago (oraingoa emakumeen presentzia handiagoz) eta publikoak urduri behatzen du gertatzen ari dena; barre, oiheu eta txalo egiten du. Ikusmira izugarria da, neurritz kanpokoak” (39. orrialdea).

Nolanahi ere, Eubak aitortzen duen moduan, *Txalaparta* atalburua da dokumentalaren mugarririk, Martuteneko Bilandegi baserri-dolarreko giro ilunean Jose eta Jose Mari Zabaletegi aita-semeen saioaren zatia, alegia. “Soinu-bandak txalaparta-saio jarrai bat eskaintzen digun bitartean, Olsonen txalapartariaren zenbait plano orokor eta zehatz konbinatzen ditu: tokiaren plano orokor batekin hasten da, eta protagonistak enfokatzeko segidan. Aitaren eta semearen irudi independenteak txertatzen ditu ondoren, horiek jotzen ari direla (irudiaren arteko soinuaren arteko desdoikuntza batzuekin); azkenik, berriro ere plano orokorrera itzulita, oraingoa urrutiago, ilunpean eszena erakusten ari diren hainbat pertsona erakusten dizkigu” (41. orrialdea). Hemendik aurrera, jarraian azaltzen diren ikus-entzunezkoaren kapituluak musika edo bertsoak nagusi diren jatorrizko giro-soinua dute. Ondoren, *Zumarragako Trikitixa* zatiak, bertako Eusebio tabernan egin zen, eta *Maritxu, nora zoaz*, Oiartzungo estankoa grotzen da. Bietan benetako eguneroko giro herrikoia erakutsi nahi da. *Bertsolaritza: Basarri eta Uztapide* eta *Bertsolaritza: Umore ona* atalburuek balio historiko handia dute. Lehenengoan, Ignazio Eizmendi, *Basarri* eta Manuel Olaizola, *Uztapide*, ari dira Berrizen. Eubak adierazten duen moduan, bigarreanean oso ezberdina den testuingurua aurkezten da: “Botilaz betetako mahai baten inguruan, Jesus Alberdi, «Egileor» (...) eta Jose Mari Gabilondo (...) bertsolariek edanari buruzko bertso barregarri sorta botatzen dute” (47. orrialdea). Azkenik, arrantzaleen bizimodua eta kantak islatzen dituen *Ondarroa* kapituluak amaiera ematen dio dokumentalari. Bestetik, *Bonde i Baskerland* ikus-entzunezkoak nekazal bizimoduaren testigantza ematen duten bederatzita atalburu ditu: *Euskal paisaia eta etnia*, *Nekazari-bizitza*, *Alboka: Leon Bilbao*, *Goazen Mendirik mendi*, *Artoa urgaltzen*, *Nekazaritza: artoa eta laia*, *Burdinola*, *Erromeria* eta *Amaia*. Paisaien irudien edertasuna, egunerokotasunaren intimitatea erakusteko gaitasuna eta, *Baskerekin* alderatuta, emakumeek esparru honetan duten presentzia erakustea dira dokumental horren ezaugarri nabarmenenak (51-69. orrialdeak).

Arestian aipatu den moduan, film analisia eta edukien balio etnografikoaren azterketa dira liburuaren beste ekarpen interesgarri bat (147-179. orrialdeak). Zinemagileek euskal-

dunak eta euskal kultura islatzeko aurkezpen-estrategia delako ikus-entzunezko estiloa erabili zuten beraien dokumentaletan. Egileen ikuspuntu behatzailea diskrezioa eta naturaltasunean oinarritzen da. Adierazpide folklorikoetan parte hartzen ari zirenek kameralaria eta soinu teknikariaren bitartekaritza ahaztu, eta bere horretan jardutea eskatzen zuten kontatzeko modu horrek. Muntaketa jarraikorrek eta jatorrizko soinuaren nagusitasunak irekitasuna edo zintzotasuna bermatzen dute. Hori dela eta, narratzailearen presentzia oso urria da, lokuzio gutxi daude bi testuetan, eta ez dago adituen elkarrizketarik edo adierazpenik. Bestalde, Eubak egiten duen dokumentalen eduki edo balio etnografikoei buruzko hausnarketak, suediarrek euskal kultura herrikoiarekiko zuten lehentasuna eta interesa erakusten du. Musika eta kantua dira gidoi askea duten bi dokumentalen ildo eta ardatz nagusia. Hartara, txistua, kanta herrikoiak, zanpantzarren burrunba, bertsolaritza eta dantza ageri dira, baina albokak eta bereziki txalapartak ezusteko lehentasuna hartzen dute testuan. Eubak baieztatzen duen bezala, “euskal herri-musikan erreferenteen aldaketa bat, ikonologia berri baten jaiotza islatzen dute aztergai ditugun dokumentalek, nolabait: txistua edota abesbatzak modu diskreto eta informalean azaltzen dira, eta protagonismo handiagoa hartzen dute soinu txiki herrikoia eta tradizionalki laidozatuak, berraurkitutako txalapartak eta kutsu exotikoko albokak” (168. orrialdea). Are gehiago, suediarrek txalapartarekiko izan zuten interesak maila historiografikoan garrantzi handiena izan zuen elementua dela azpimarratzen du liburua. Manuel Labordek atzeritarren filmaziorako txalaparta saioa antolatu zuen Urrietako Sausta baserrian eta bertara Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquert ere gonbidatu zituen. Euskal zinemagileek ez zuten txalaparta ezagutzen, baina emanaldiarekin txundituta beren hurrengo proiektuan, *Pelotari* (1964) film laburrean txertatu zuten. “Nahi edo jakin gabe, beren presentziarekin eta lanarekin, Grenholm eta Olson ez ziren soilik fenomeno horren lekuko izan; kanpoko eragile katalizatzaile bihurtu ziren, eta haien bitartez izan zuten txalapartak 1963. urtean bizi berri baterako bidean inflexio-puntua” (168. orrialdea).

Aurrekoaren harira, Suediako “ikus-entzuleen gehiengo handi batek ez zekien ezer *Basker* filmak aurkezten zuten kulturari eta lurraldeari buruz” (194. orrialdea). Hartara, kon-tuan hartzekoa da liburuak egiten duen garaiko prentsan bi dokumentalek telebista-kritikan izan zuten oihartzunaren analisisa (193-197. orrialdeak). Eubak labur azaltzen du garaiko egunkari suediarren telebista-kritikek bi dokumentalen edertasuna, kalitatea eta erakusten zuten munduarekiko errespetua eta distantzia goraiatu zutela. Egunkari ezberdinetako kazetariak bat datoz erreportariaren estilo behatzailea nabarmentzerakoan. Hartara, laudorio ugari jaso zituen Grenholmek eta Olsonenek euskaldunak eta euskal kultura plazaratzeko erabili zuten aurkezpen-estrategiak. Esan bezala, lokuzio tarteak urriak dira bi ikus-entzunezko horietan eta ez dago aditu esanguratsuen elkarrizketarik. Euskal Herriko unibertso ezezagunaren jatorrizko irudi eta soinuak bideratzea da Grenholm eta Olsonen lehentasuna. Telebista kritikaz gain, *Basker* eta *Bonde i Baskerland* emankizuna aurkezteko Euskal Herriari eta euskal kulturari buruzko artikulua eta atal monografikoak ere argitaratu ziren garaiko egunkari eta gehigarri suediarretan. Eubak frogatzen duen bezala, bi dokumental horiei esker izan zuten suediarrek euskaldunen eta euskal kulturaren existentziaren berri. Era berean, bi dira artikulua eta gehigarri horietan euskaldunei buruzko diskurtsoan errepikatzen diren ideiak: Euskal Herria hizkuntza eta kultura enigmatikoa duen herria dela, eta, oso industrializaturik egon arren, tradizio eta sustraiak sakon eusten dien komunitatea dela. Egoera politikoari buruzko erreferentziak urriak dira eta deigarria da Suediako hainbat egunkariren ikuspegitik *Baskeren Idi-dema* edo *Ahari-talka* atalburuek animaliekiko biolentzia eta tratu txarrak agerian uzten zituztenaren salaketa.

Fernando Larruquert, Nestor Basterretxea eta Pio Caro Barojaren dokumental etnografikoen ezaugarrien deskribapen orokorra egiten da liburuaren seigarren kapituluaren (200-2012. orrialdeak). “Printzipioz, ez dirudi euskal erreportariak suediarrengan edota suediarrek euskaldunengan eragin zuzenik izan zutenik” (2002. orrialdea). Egia esanda, oso ezberdinak dira hiru egile horiek eta suediarrek euskal kultura eta folkloreakerikiko duten ikuspuntua, eta baita hori dokumentatzeko estiloa. Interesgarria den arren, gogoeta honek ez du ekarpen nabarmenik egiten. Aitzitik, jarraian azaltzen den atzerriko kronikariaren ikus-entzunez-

koen gogoetari egotzitako tarteak labur geratzen da (212-217. orrialdeak). “Arras interesgarria da fenomeno hori aztertu eta kultura baten inguruan kanpotik proiektaturiko ikuspuntuak hautematea, euskaldunei buruzko ideia eraikitzeko modu desberdin horiek kulturaren barneko ikuspegi propioaren osagarri baitira. Are gehiago: atzerriko dokumentalisten lanak berebiziko alteritatea eta distantzia eskaintzen ditu kultura bat erlatibizatzeko eta balioesteko, ikusmolde orekatuago, osasungarriago eta aberasgarriago batetik hautemateko. Asko ikasten dugu lan horietatik” (217. orrialdea). Hauxe da, dudarik gabe, etorkizunari begira zabalik dagoen ikerlerro interesgarria.

Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua



GOIKOETXEA, Garikoitz
Euskara irabazteko bidean

Donostia : Berria, Elkar Argitaletxea, Jakin
231 or. ; 21 cm
ISBN: 978-84-9027-675-4

2016 urteko sorpresa izan zen “Euskara irabazteko bidean” liburua, Garikoitz Goikoetxea Berriako kazetariak idatzia. Besteak beste, Elkar argitaletxearen eta Berria egunkariaren artean abiatu duten Aleka sailaren barruan dago liburu hau, eta euskararekin lanean ari diren, eta oro har, euskararen egoeran interesa duten lagunen artean arrakasta handia izaten ari dela esan genezake.

Egileak ere merezi du deskribapen txiki bat, izan ere, azken urte hauetan Garikoitz Goikoetxea izan da Berria egunkarian euskarari buruz artikulua argitaratu dituen kazetari nagusia. Hain zuzen ere, besteak beste, Espainiako EA Erako Ordezkarria zen Carlos Urquijoren aferaren moduko gaiak aztertu ditu bere erreportaje, elkarrizketa eta artikuluetan. Liburu honen kasuan, ordea, gaia zabaldu eta euskararen egoera ezin hobeto islatzen duen testua argitaratu du. Hori egin ahal izateko, Berriarako euskararen gaikako edo lurraldekako egoerari buruzko lanak argitaratu izanak lagundu dio bere lehen liburua hain egoki idazterako orduan.

Esan genezake liburu honek diagnosi lana egin nahi duela, edo beste era batera esanda, euskararen egoera zein den aztertzeko material bezala erabili daitekeela. Izan ere, euskarak hainbat esparrutan duen egoera gertutik aztertzen du arlo bakoitzeko adituekin bildu eta beraien ekarpenak eta iritziak jasoz. Hau honela, eta adibide batzuk jartzearen, Lorea Agirre, Iñaki Agirreazkuenaga, Xan Aire, Jon Aizpurua, Olatz Altuna, Kike Amonarriz, Lurdes Auzmendi, Amelia Barquin, Patxi Baztarrika, Paul Bilbao, Jone Goirigolzarri, Jone Miren Hernandez eta Iñaki Martínez de Luna izan dira liburu honetan parte hartu duten adituetako batzuk. Jakina da aditu asko aipatu gabe gelditu direla azken esaldian, baina zerrenda mugatu honek berak modu nahiko zehatzean adierazten du elkarrizketatutako adituen eta jasotako ekarpenen aniztasuna nolakoa izan den.